



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2010-09-24

VIII. URTEA 2.082. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Lehen Hezkuntza martxan jarri dute egungo araudiaren babesarekin

**GURASO ELKARTEA** «Hezkuntza Saila ez da ausartzen ezetz esatera, horretarako araudia aldatu beharko luke»

**BAIMENA** Itziar eta Zubietako Eskola Txikiek jaso dute, Larraulen zain jarraitzen dute araudia alde eduki arren 4




Hemezortzi haurrek eman dute izena Larraulgo eskolan. E. MAIZ

## Ibarran eta Alegian azoka eguna izango da igandekoa

**EKONOMIA** Alegian artisautza eta nekazal postuak jarriko dituzte; Ibarran Azokaren X. urteurrena ospatuko dute 5-7

## Aurrera Pilota Eskolako aldaketa «gogorra» izan da

**LEITZA** Arduradun ohiak «minduta» agertu dira Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritzarekin 3



saridunak

Gaur, irailak 24, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Tolosako Leidorren eskainiko den "Vaya Semanita" antzezlanerako sarrera pare baten sariduna

Garbiñe Ruiz de Eguilaz (Tolosa)  
Sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

IRURAKO  
SAN MIELAK  
2010

KONTZERTUAK  
Redveil  
Governors  
KEROBIA

Iruran  
irailaren 25ean  
00:00etan

# Udazken orekatu eta kalitateduna

**Tolosa** » Abendura arteko kultur ekitaldietan 'Vaya Semanita' eta Nazioarteko IX. Trikitixa jaialdia nabarmendu dituzte.



Miren Zeberio musikaria, Jokin Ansorena kultur teknikaria, Andoni Iturzaeta kultur zinegotzia eta Irene Larraza tsibat saileko koordinatzailea, atzo udazkeneko egitarauaren aurkezpenean. I. TERRADILLOS

## INIGO TERRADILLOS

Krisia dela eta, kulturari eskainitako aurrekontua beste urteetan baino txikiagoa da, eta hori nabari da eskaintzan, baina dena den, Andoni Iturzaeta kultura zinegotziak azaldu bezala, «udazkeneko egitaraua osatzerakoan ohiko bi zuta-beak hartu dira kontuan, hau da, orekatua eta kalitatezkoa izatean».

Hala, abendura bitarte aurreikusi dituzten emanaldi eta ikuskizunetan, bi nabarmendu ditu Iturzaetak: bata, gaur Leidorren estreinatuko duten *Vaya Semanita* antzezlan, eta bestea, azaroaren 5ean izango den IX. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia. Azken hau estreinako hartuko du Tolosak, eta Italiako, Bretaniako, Kataluniako eta Euskal Herriko ordezkaririk lehiatuko dira txapela lortzeko.

Ohi bezala, bertako artistei ere lekua egin zaie egitarauan, eta horren adibide dira Hodei Truk abesbatzaren *Hodei Pop* emanaldia, Tolosarekin lotura handia izan zuen Erkki Pohjola finlandiarren omenezko *Et Incarnatus* orkestraren kontzertua edota Alurr dantza taldearen *Oinazez* ikuskizun berria. Bestalde, horiez gain, beste emanaldi berezi bat ere izango da: «David Colomo tolosarrak gitarra flamenkoa jotzen du, eta berarekin ari gara hitz egiten Tolosan ikuskizun bat eskaintzeko».

## Kultur eragile guztiei eskerrak

Antzerki, musika eta zinemaz gain, aski errotuta dauden Babarrunaren eta Txuletaren Festak edota Abesbatza Lehiaketa eta Titirijai jaialdia ere izango dira, eta berezitasun bezala, Gerra Zibilari buruzko jardunaldiak egongo dira.

Udalaz gain, TEE, Bonberenea edota GKO bezalako eragileek antolatzen dituzten ekintzek osatzen dute egitaraua. Euren lana eskertzeko dela dio Iturzaetak, «kultur eskaintza aberatsa bada, hein handi batean euren gaitik baita».

## » EGITARAUA

### Iraila

■ **Antzerkia.** *Vaya Semanita*, gaur, 20:00etan, Leidorren.

### Urria

■ **Antzerkia.** Agerre taldearen *Doltza* lana, urriaren 1ean, 20:30ean, Leidorren.

■ **Ikuskizuna.** Txirri, Mirri eta Txirribiton junior-en *Katxurri Miliputxi*, urriaren 2an, 17:00etan, Leidorren.

■ **Kontzertua.** Golden Apple Quartet taldearen *Los Golden en blanco y negro* emanaldia, urriaren 8an, 20:30ean, Leidorren.

■ **Antzerkia.** Damini house of culture-ren *Dre* ikuskizuna, urriaren 9an, 20:00etan, Topic-en.

■ **Jardunaldiak.** Gorren Sentsibilizazio Jardunaldiak, urriaren 15ean eta 16an.

■ **Kontzertua.** Hodei Truk abesbatzaren *Hodei Pop* emanaldia, urriaren 17an, 12:00etan, Leidorren.

■ **Antzerkia.** *Etzi* antzezlan, urriaren 22an, 20:30ean, Leidorren.

■ **Kontzertua.** Erkki Pohjolaren omenezko *Et Incarnatus* orkestraren kontzertua, urriaren 23an, 20:00etan, Leidorren.

■ **Antzerkia.** La leyenda del Farol taldearen *Teatro Plus*, urriaren 23an, 18:00etan, Topic-en.

■ **Jardunaldiak.** *Historia eta Memoria*, Francisco Etxeberria eta Lurdes Errastirekin, urriaren 20an.

■ **Abesbatza.** 42. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, urriaren 27tik abenduaren 1era.

■ **Azoka.** Tolosa Goxua azoka, urriaren 30ean.

### Azaroa

■ **Jaialdia.** IX. Nazioarteko Trikitixa Jaialdia, azaroaren 5ean, 20:30ean, Leidorren.

■ **Antzerkia.** Marie de Jongh taldearen *Robot maitea* lana, azaroaren 6an, 17:00etan, Topic-en.

■ **Antzerkia.** Buenamandarina taldearen *Rebelion en el baño*, azaroaren 13an, 18:00etan, Topic-en.

■ **Festa.** Travelling jai Disko Festa, azaroaren 13an.

■ **Azoka.** Babarrunaren Festa, azaroaren 20ean eta 21ean.

■ **Jardunaldiak.** *Historia eta Memoria*, Francisco Etxeberria eta Lurdes Errastirekin, azaroaren 25ean.

■ **Jardunaldiak.** Emakumeengana Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguneko ekitaldiak, azaroaren 25ean.

■ **Jaialdia.** Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia, azaroaren 27tik abenduaren 5era.

### Abendua

■ **Azoka.** Txuletaren Festa, abenduaren 4tik 8ra.

■ **Antzerkia.** Theatre du Lutin taldearen *Lineas de Horizonte* lana, abenduaren 6an, 18:00etan, Topic-en.

■ **Antzerkia.** Compañía Bastian/Pucheren *La leyenda del conejo volador*, abenduaren 7an, 18:00etan, Topic-en.

■ **Antzerkia.** Libertablas taldearen *Pinocho* antzezlan, abenduaren 8an, 18:00etan, Topic-en.

■ **Dantza.** Alurr dantza taldearen

*Oinazez* ikuskizuna, abenduaren 10ean, 22:00etan, Leidorren.

■ **Azoka.** Gabonetako Azoka Beberria, abenduaren 18an.

■ **Antzerkia.** Laenanaranjaren *Vagones de trigo* emanaldia, abenduaren 18an, 18:00etan, Topic-en.

■ **Antzerkia.** Poxpolo ta Konpainiaren *Segi jotzen* emanaldia, abenduaren 26an, 12:00etan, Leidorren.

■ **Ekintzak.** Gazte Astea Topagunean, abenduaren 26tik 30era.

■ **Jolasak.** Haur Parkea Zerkautsian, abenduaren 27tik 31ra.

■ **Antzerkia.** Buho y maravillas taldearen *Oz-eko aztia*, abenduaren 30ean, 18:00etan, Topic-en.

### Erakusketak

#### Aranburu.

■ GKO Galeriararen eskutik *Inestable*, azaroaren 13ra arte.

■ 2011 egutegiko argazkiak urriaren 9ra arte.

■ Ignacio Elizaranen erakusketa urriaren 15etik azaroaren 13ra.

■ Japongo txotxongiloak azaroaren 27tik abenduaren 5era arte.

■ *Tolosa, la Bayoneta y la caricatura del ogro. 1808-1813*, abenduaren 17tik urtarrilaren 8ra.

#### GKO Galeria.

■ *Ertza*, urriaren 8tik azaroaren 6ra arte.

■ *Hira 10 urte*, azaroaren 8tik azaroaren 21era.

■ *Irudiak*, urriaren 26tik aurrera.

#### Topic.

■ *Indonesiako Txotxongiloak*, urriaren 15etik urtarrilaren 30era.

## Kirol jarduera

### Tolosan, bihar, irailak 25

#### Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, lehenengo mailakoen partida: Tolargi - Carpinteria Gamon.

■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00, nazional mailako partida: Laskorain - Euskalduna.

#### Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:00etan, jubenil mutilen partida: Take - Zarautz.

■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, kadete nesken partida: Take Aralar - BKL.

■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan, jubenil nesken partida: Aralar Take - Easo A.

#### Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, kadete neska F11, 09:30etan: Tolosa CF - Beasain.

■ Usabalgo futbol zelaian, kadete lehenengo mailako partida, 11:00etan: Tolosa CF - Lazkao.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30, infantilen ohorezko mailako partida: Tolosa CF - Beasain.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:00etan, preferente mailako partida: Tolosa CF - Getaria.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, jubenilen lehenengo mailako partida: Tolosa CF - Intxurre.

■ Berazubiko futbol zelaian, 17:00etan, jubenilen liga nazionalen partida: Tolosa CF - Danok Bat.

### Tolosan, etzi, irailak 26

#### Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantilen arteko lehia, 10:00etan: Tolosa CF - Intxurre.

## Laburrak

### Datorren astelehenean zabalduko dute Liburutegia

**BIDEGOIAN** ■ Bidegoiango Liburutegia datorren astelehenean aurrera egongo da zabalik udako oporaldiaren ostean. Orduetgia ohikoa izango dela jakinarazi dute, hau da, astelehenean eta asteazkenetan 16:30etik 19:00etara.

### Kultur tailerretan izena emateko azken egunak

**TOLOSA** ■ Tolosako Udalak antolatutako kultur tailerretan izena emateko hilabete bukaerara arteko epea dago. Antzerkia, argazkigintza, baleta, dantza garaikidea, ehoziarik eta patchwork, pintura, eskulanak eta zeramika tailerren artean aukera daiteke. Bestalde, Jabekuntza Eskolan emakumeentzako soilik diren ikastaroak ere antolatu dituzte: Photoshop, emakumeak kamararen atzean, rap feminista eta Euskal Herriko mugimendu feministaren historia.



Alurr dantza taldeak *Oinazez* ikuskizun berria aurkeztuko du abenduan. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Iaz, Nafarroako Herriarteko Txapelketaren finalera joan aurretik leitzarrak. HITZA

## Leitzako Aurrera Pilota Eskola «minduta» utzi dute batzordekide ohiek

### ASIER IMAZ

Aurrerako Pilota Eskolako batzordeak gogor egin du lan azken lau urte hauetan. «Baina lan horren gestioa Zuzendaritza taldeak onartzen ez duenez, Aurrera Pilota Eskola utzte beste aukerarik» ez zaiela gelditu azaldu dute.

Azken lau urte hauen errepasoa egin dute Patxi Sagastibelza, Jon Iparragirre, Sagrario Lasarte, Vicente Hernandezena eta Juan Jose Goikoetxeak, Aurrera Pilota Eskolako batzordea osatzen zuten bost kideek.

### Aurrera Kirol Elkarteak, Leitza

Aurrera Kirol Elkartearen baitan talde desberdinak aurkitzen dira, besteak beste, futbol taldea, pilota eskola, dantza taldea, mendi taldea eta zaldi taldea. Denek Aurreraren izena daramate.

Aurrera Kirol Elkarteak bere Zuzendaritza orokorra dauka, baina batzorde bakoitzak bere arduradunak ditu. «Ekonomi mailan ere, arlo bakoitzak bere kontua edo kartila dauka, Zuzendaritza orokorrak berea duen bezala».

### 2006. urtea, lehen urtea

Aurrera Pilota Eskolan 2006. urtean batzorde aldaketa egin zen. Bost kide berri sartu ziren orduan. Ondorengourteetan, hauetako bik beste biri utzi zieten lekua.

Hasiera ez zen erraza izan batzordeko kide berrientzat: «Gure aurreko lantaldeak Pilota Eskola utzi egin zuen, orain guk izan ditugun arazo berdinengatik, hau da, Aurrera Kirol Elkartearen Zuzendaritzak jartzen zizkien trabengatik». Hala eta guztiz ere, bilera ba-

tzuen ostean, «ustez gauzak nahi-ko bideratuta eta goxatuta gelditu ziren. Ordurako Zuzendaritza taldeak onartuta zeukan bitartekariaren papera betekoa zuela. Beraz, gogo handiarekin hasi ginen lanean 2006an».

### 2007a, «eskemak hautsiz»

Barealdiaren ondorengo ekaitza kirol emaitzen arloan iritsi zen 2007. urtean. Hori bai, ekaitzak titulu jasa ekarri zuen.

Horrela gogoratzen dute Pilota Eskolako kide ohiek: «2007ko urtea eskema guztiak haustekoa izan zen. Nafarroako Herriarteko Txapelketa eta Euskal Herrikoa irabazi genituen; Berria Txapelketa joateko gonbitea jaso genuen; Olazabalek debuta egin zuen Asperekin eta haurrek gero eta gehiago apuntatzen ziren Pilota Eskolan. Urtea zoragarria izan zen».

Puntu honetan aurreko batzordearen lana gogoratu nahi izan dute: «Gu iritsi ginenean, bidea markaturik zegoen. Guk jarraipena eman genion eta zertxobait zabaltzen saiatu ginen. Eurek lan handia egin zuten eta horren adibidea, aurtun jokatu ez den Leitzako Pilota Txapelketa da. Aurreko batzordea hasi zen Txapelketa antolatzen eta garrantzi handia hartu zuen. Guk jarraipena eman genion».

2007ko emaitzen eta egindako lanaren ondorioz, Aurrera Pilota Eskolak, lehenaz gain, inguruko herrietara zabaltzen jarraitu zuen. Urte borobil horretan, Zuzendaritza orokorrarekin arazorik ez zutela eduki ere aipatu dute batzordekide ohiek.

### 2008/09, «lana eta lana»

Aurrera Pilota Eskola eta bertako pilotariak Tolosaldean eta Hego Euskal Herri osoan ezagunak dira, maila handikoak direlako. Urtean zehar jokatzeko diren txapelketa desberdinak ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Euren presentzia edonon aurki daitezke.

Aurrera Pilota Eskolako arduradun ohien esanetan, aurreko batzordearen bidea jarraituz iritsi dira helburu horretara: «Kirol emaitza onak lortzen dituzunean, leku desberdinetatik hasten zaizkizu deika; euren txapelketarako Aurrera Pilota Eskolakoren bat nahi dutela esanez. 2007ko emaitzen ondotik, hori argi ikusi dugu».

Txapelketetara zabaltzearekin batera, beste klubetako funtzionamendua nolakoa den ikusten joan dira leitzarrak. «Baina aldi berean, eurek gurea ikusi dute eta Pilota Eskolaren funtzionamenduarekin gustura gelditu dira. Leitzara etorri direnean, hemen zegoen seriotasuna, puntualitatea, frontonaren erabileria, propaganda... azpimarratu izan dizkigute. Horren atzean ez dago bi pertsonen lana, talde batena baizik. Horren atzean ez daude hitzak bakarrik, orduak eta orduak baizik».

### 2010. urtea, «urte mingarria»

Aurrera Pilota Eskolako kide ohien esanetan, laugarren urte honetan etorri dira Aurrera KEren Zuzendaritzarekin arazoak, «edo aurtun geratu dira agerian behintzat».

2006an Pilota Eskola eta Aurrerako Zuzendaritzaren arteko loturak egiten zituen bitartekari bat ze-

goen. Honek lan hori utzi zuenean, ordezko bat sartu zen. «Aurrerako talde desberdinen artean eta Zuzendaritza orokorraren artean ez da batzarrak egiten hilero edo bi hilean behin. Guri gustatuko litzaike arren, ez du horrela funtzionatzen. Lehen urtean bitartekariekin ibili ginen eta dena ongi joan zen. Hauek ordea denbora gutxi egon ziren. Lanez gainezka zeudela eta utzi egin zuten. Geroztik ez zuten bitartekariarik izendatu eta guk normaltasunez funtzionatzen jarraitu genuen».

2010. urtean ordea, aurretik egon zitezkeen «arazotxoak» ezin ulertu bilakatu dira. Honela azaldu dute Pilota Eskolako arduradun izandakoek: «2009 amaieran Foru-Ogasunak ikuskapen bat egin zuen. Honen ondorioz, Aurrera KEren Zuzendaritzak bane estatutuaren jarraipena zorroztea erabaki zuen. Puntu batek 600 eurotik gorakogastuez hitz egiten du; kasu horretan Zuzendaritzaren baimena behar dela esanaz».

Gauzak horrela, frontonaren berogailu zaharra izorratu zenean, berria erosi genuen herriko hainbat ekimenetan erabiltzeko: ihauterik, herri kirolak... 600 eurotik gora ordaindu genuen eta ohar baten bidez tokea eman ziguten. Argi utzi nahi dugu Pilota Eskola ekonomikoki oso ongi dagoela. Kontuak txukun-txukun eman ditugula Zuzendaritzak eskatu bezala eta azkeneko urteetan beti soberakinekin aurkitzen ginela. Eurek esaten dute Pilota Eskolaren dirua euren dela, eta behar izanez gero beste batzorde batetara bideratu dutela. Puntu honetan ez gaude

ados. Pilotari bakoitzak hilero 12 euroko kuota ordaintzen du, guraso gehienak bazkideak izan gabe; patrozinadoreek ere berdin, Pilota Eskolarentzat ematen dute dirua; horietaz gain zozketak, jaialdiak... antolatzen ditugu. Hau dela eta, azpimarratu behar dugu, gure ustez, Pilota Eskolako gestio ekonomikoa gure esku egon behar duela, zalantzarik gabe».

Bi zuzendaritzen arteko tupusteko berri bat, Euskal Herriko Txapelketaren bueltan etorri zen: «Alegazio baten harira izan zen. Euren esanetan, horrelako kontuak Zuzendaritzatik egin beharreko gauzak ziren. Gure ustez horrek ez zuen zentzurik, Pilota Eskola barneko ardurarik».

Gauzak horrela, maiatza inguruan bi bilera egin ziren. Pilota Eskolakoek «bitartekari baten beharra zegoela» azaldu zuten, «horrela gaizki ulertu guztiak konponduko zirelakoan». Lan hori, Zuzendaritza orokorreko kide batek hartu zuen bere gain. «Gure ustez erabaki horrekin arazoa bideratuta gelditu zen. Eta horrela ekin genion lanari. 10 egunetara, bitartekariari telefonoz deitu eta elkartu egin ginen».

«Ustez», dena bideraturik zegoenean, pilota batzordeko kide ohientzat berriro nahasi zen giroa. Bitartekariarekin egon eta «aste-betera», Aurrera KEko Zuzendaritzatik bilerarako deitu zituzten: «Eskutitz bat irakurri eta eman zitugun bertan. Gure aldetik genbiltzala zioen bertan, eta estatutuko puntuak betetzeko asmorik ez bagenuen, abuztuaren 31n gurekin harremanak bukatutzat emango zituztela. Ezbabaidatzen saiatu ginen baina erabakia hartuta zegoela esan zitugun».

«Handik bi egunetara, guk deus jakin gabe, bazkide guztiak jaso zuten eskutitza. Orduan ohartu ginen gerra zikin batetan sartu gintuztela eta denborak erakutsi duen bezala, konponketarako asmorik gabe zeudela. Behartuta sentitu ginen bazkideei gure erantzuna ematera, bertan argibideak emanaz. Jarritako epea iritsi zen inongo hartu-emanik gabe».

### «Ez dute baloratu gure lana»

Agerikoa erraz ikusten den bezala, itzalean egiten dena kontuan hartzea zailagoa da. Sentsazio horrekin aurkitzen dira batzordekide ohiek, «oso minduta». Eurek diotenez, «lan egiteko modu desberdinak daudela pentsatzen dugu, beste klubetan gertatzen den bezala, eta lagundu beharrean oztopak jarri izan dizkigute. Ez dute guregan konfiantzarik erakutsi. Horren adibidea Pilota Eskolaren izenean iristen ziren eskutitz guztiak irekitasi ematen zizkigutela izan da».

Azkenik, batzordekide ohiek Zuzendaritza orokorrak «oso jarrerara itxia eta inposatzailea» erakutsi duela ere salatu nahi izan dute. «Ez dute guk egindako lan balaoratu eta Pilota Eskola uztera behartu gaituzte».

# 18 ikaslerekin Larraulgo Eskola Txikiak bizirik jarraitzen du

**Larraul** » Udalak eta Guraso Elkarteak aurrera jarraitzeko erabakia hartu dute. Lehen Hezkuntza martxan jarri dute.

## ERREDAKZIOA

Iazko ikasturtea, borrokatua izan zuten larrauldarrek. Udala eta Guraso Elkarteak bat eginda, herriko Eskola Txikiaren aldeko borrokan aritu ziren buru belarri. Eusko Jaurlaritzako oraingo Hezkuntza Sailak, aurrekoek idatziz emandako hitza ez dute bete nahi.

Larraulgo Udalak eta Guraso Elkarteak, hainbat bideukitu dituzte, duela bi urtetik herrian duten eskolak bizirik jarraitu dezan. Eta aurtengo ikasturtea ere bide bereetik abiatu dute. Borrokan segituko dute eta abokatuekin batera lanean ari dira.

Duela urte batzuk, herriko haur kopurua ikusita, eskola sortzeko biderei ekin zioten. Hezkuntza Sailak onartutako ebazpena betetzen zutenek, kalitateko hezkuntza zerbitzua herrian bertan edu-



Atzoko eguraldi ona aprobetxatuz, eskolako haurrak parkean jolasean ibili ziren. E. MAIZ

kitzea nahi izan zuten eta baita lortu ere. Eskola horrek etorkizuna izan dezan, Haurreskola ere badute eta aurten hiru haur daude.

Honela, Larraulgo Udala, Hezkuntza Sailatik jaso duen ebazpen ofizial bakarrak dioena betetzen ari da: «2010-2011 ikasturtean, ale-

gia aurtan, herrian bertan 12 urterainoko eskola propioa izango zutela» dio ebazpenak.

Idatziz jaso duen ebazpenaren aurkako erantzunik ez dute jaso. Ahoz ordea, ebazpenak dioenaren aurka, bestelakoa adierazi diete. Hau da, 6 urtetik gorako

haurrek, Asteasuko eskolara joan beharko dutela. Guraso Elkarteak kideen esanetan «Larraulgo eskolak araudi guztia betetzen du eta ez dira ausartzen idatziz ezezkoa esatera. Horretarako onartuta duten araudia aldatu beharko lukete».

## » ESKOLAKO JAIA

### Bihar, hilak 25

- **Jaia.** Eskola hasi berrien jaia egingo dute eta jarraian bazkaria.
- **Txartelak.** Herri Ostatuan.
- **Prezioa.** Helduak 14 euro eta haurrak, 7 euro.

### Lehen Hezkuntza martxan

Larraulgo herriak duen Hezkuntza eskubidea bermatzeko, eta legeak dioena kontuan hartuz, 2010-2011 ikasturtean, Lehen Hezkuntza zerbitzua martxan jarri dute. Pausu honek, Udala eta Guraso Elkartearen oniritzia izan du, eta baita, Asteasuko Pello Errota ikastetxearen babesa ere. Honela, 2 eta 6 urte bitarteko haurrak Larraulgo Eskolan daude.

«Elkarlanerako prest gaude. Guk Hezkuntzari ez diogu aterik itxi nahi» diote Guraso Elkarteek. Baina, «Hezkuntza Sailak ez du bere erantzukizunik bete nahi» gaineratzen dute. Eta «Udalak eskaintzen duen zerbitzu bat kendu nahi dute irizpide objektiborik gabe. Baldintza guztiak betetzen dituen zerbitzua da eta baimena emana duena» gaineratzen dute.

Itziar eta Zubietako eskolek, 8 urte bitarteko haurrak eskolaratzeko baimena jaso dute. Zubietakoek ekainean eta Itziarkeek iraillean jakin zuten. Larraulen zain daude.

# Etzi Zizurkilgo Autoen IV. Slaloma izango da

**Zizurkil** » 20 pilotu aterako dira eta horietako bat emakumea izango da. Hasiera 10:30ean emango zaio Ugare auzoan.

## ERREDAKZIOA

Igandean Zizurkilgo Autoen IV. Slaloma izango da Ugare auzoko kalean. Laugarren urtez jarraian antolatu dute eta atzo aurkeztu zuten udaletxean. Bertan, Maria Angeles Lazkano alkatearekin batera, antolatzaile lanetan ibili diren Escuderia Jaizkibeiko Aaron Robles eta Iñaki Cuesta izan ziren. Azken hau, Gipuzkoako Automobilen Elkarteak kidea da.

Lasterketari hasiera 10:30ean emango zaio baina errepeidea 09:00ean itxiko dute trafikoarentzat. 20 gidari daude izena emanda Slalomaren parte hartzeko.

Aurreko urtean baino jende gutxiagok parte hartuko badu ere, «ikuskitzuna» egongo dela uste dute antolatzaileek eta «ondo pasatzeko eta disfrutatzeko» aukera izango dela Zizurkil. Aurreko bi edizioen txapeldunak, aurtan ezin izango du parte hartu baina bere autoa, ikusleen gozagarri, bertan izango da bere kide batek ekarriko baitu.

Pilotu bakoitzak, lehen bira entrenamendu gisa egingo du eta jarraian bi bira eman beharko dizkio zirkuituari. Ibilbidea, tren gelto-



Cuesta, Lazkano eta Robles izan ziren IV. Autoen Slalomaren aurkezpenean. ESTIEZBEZA

kiaren azpiko kalean izango da Ugare auzoan.

Villabonako kiroldegi atzeko biribilgunetik hasi eta Pesus zubiraino errepeidea itxita egongo da. Kilo metro inguruko ibilbidea da eta

auto bakoitzak minutu eta erdiko denboraren inguruan ibiltzea aurrekusten dute. Autoak Pesus zubiarene beste aldean egongo dira aparkatuta eta trafikoari ez dio eragingo.

### Bizkaitar ugari eta irurur bat

Pilotuen gehiengoak bizkaitarra izango da. Neska batek ere izena eman du. Eta aurtan, eskualdeko batek hartuko du parte, Amets Mendizabal irururarrak.

**DESACRISTAL**

Autoarentzako kristalgintza      Baimendutako  
Muntaia, sailmenta eta konponketak      laminek instalazioa  
Autoa, furgoneta, kamioia nahiz autobusa      SOLAR-CHECK

Ibaiondo baillara, 17 - 8. pabilioia - N-1 errepeidea - IRURA  
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

Taberna - Jaletxea  
**Zaharren Billokia**  
Jai nerrietasun  
agart!

- Aste osoan eguneko menua
- Zure aurrekontuari egokitzen gara
- Menu beraziak

Tel.: 943 69 26 32 • Maki Deuna Plaza, 8 • IRURA

**Irururako Ikastola**

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!**

Zilar kalea, 4 eta San Migel plaza, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

# Piparraren usain gozoa herri guztitik barreiatuko da bihar goizean zehar

**Ibarra** » 'Ibarra, azoka eta piparra' ospatuko da herriko bi gunetan; erakustokiak eta txapelketak izango dira.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako langostinoak protagonista izango dira beste behin ere, bere jaioterrian. Izan ere, igande honetan, *Ibarra, azoka eta piparra* izenburua duen azoka berezia ospatuko da eskualdeko herrian. Emeterio Arrese Parkean eta San Bartolome plazan, era guztietako postuak bilduko dira goiz guztian zehar. 10:00etan irekiko dituzte ateak saltokiek eta 14:00ak arte egongo dira zabalik.

Hauspota kultur elkarteak antolatzen du ekimena Udalaren laguntzarekin, eta Zubelzu Piparrak, Txumitxa eta Piparraren Kooperatibaren babesarekin. Egunean zehar festa alaitzeaz herriko trikitilariak eta dultzaineroak arduratuko dira.

Bertako produktuak eta urte garai honetakoak ezagutzera emateko asmoz barazki, jaki eta edariz beteriko postuak egongo dira jarri-ta Emeterio Arrese plazan. Hala, eskualdeko gazta eta ogia, herriko baraztako fruituak, gozo gauzak, Nafarroako ardoa, pintxo morunoak... erosi ahal izango dituzte bertaraten direnek... Honez gain, edozein azokatan bezala, talorik eta sagardorik ere ez da faltako.

Gune berean, azienda edo gana-



Piparrak ez ezik, beste hainbat bertako produktu erosteko aukera ere izango da. A. IMAZ

duak ere lekua izango du. Arane iturriaren inguruan egongo dira ikusgai. Hortxe izango dira honenbestez, Ibarrako baseritarrek herriko larreetatik jaitziko dituzten behiak, txekorrak, zaldiak, pottoak, euskal txerria arrazako txerrama zein txerrikumeak, ardiak, ahuntzak...

Azokako bigarren gune garrantzitsua San Bartolome plazakoa izango da. Tolosaldeko artisau ezberdinek beraien lanak jarriko dituzte ikusgai. Bertan egongo dira salgai ere, lore lehorrak, egurra (bastoiak, erlojuak, gurdia...), teila apaingarriak, eskumuturrekoak... Honez gain, urtean zehar herriko

ekitaldi ezberdinetan ateratako argazkien erakusketa egongo da jarritan. Baita, Kultur Etxeko tailerretan landutako eskulanak ere: pintura, ehoziri edo bolilloak...

Festari amaiera emateko, antolatzen eta laguntzen aritu direnek bazkaria izango dute herriko plazan, postuak jarri dituztenekin eta lehiaketan parte hartu dutenekin batera. Dena den, bertaratu nahi dutenek alde aurretik hartu behariko dituzte txartelak.

## Bi norgehiagoka jokoan

Igande goizean bi Txapelketa jokatuko dira. Alde batetik Xepla elkartearen eskutik, Euskal Herriko

Piparraren VI. Lehiaketa Gastronomikoa, eta bestetik, Tolosaldeko XIII. Ezti Lehiaketa.

Duela bost urtetik nazio izaera du piparraren lehiaketak eta lurralde bakoitzak ordezkaria izan dezaten, antolatzaileek zazpi lehiakide gonbidatu dituzte, lurralde bakoitza ordezkari dezaten. Guztira, 22 bat lagunek hartuko dute parte. Horietako asko ingurukoak.

Parte-hartzaileek piperrada (Ibarrako piparra nahitaez sartu behar dute) eta Ibarrako piparrak egindako sei pintxo berdinduak (Ibarrako piparra nahitaez sartu behar dute) jartuko dituzte. Piparrak gain, beraiek aukeraturako osagai gehiago ere erabili ahal izango dituzte horretarako. 09:00ak inguruan hasiko dira lehiakideak beraien jakiak prestatzen eta 13:00etarako denak aurkeztu behar ditzkiete epai-mahaikoiei.

Ibarrako piparrak, piper gorriak eta berdeak nahiz tipula antolaketak jarriko ditu, eta gainerako osagaiak, parte-hartzaileen esku

## » 'IBARRA, AZOKA ETA PIPARRA'

### Lehendabiziko gunea

- **Kokapena.** Emeterio Arrese plaza.
- **Ikustekoak.** Azienda eta gauda egongo da ikusgai; baita, bertan egindako jakien postuak ere.
- **Txapelketak.** Euskal Herriko Piparraren VI. Lehiaketa Gastronomikoa eta Tolosaldeko XIII. Ezti Txapelketa.

### Bigarren gunea

- **Kokapena.** San Bartolome enparantza.
- **Ikustekoak.** Artisautza postuak aurkitu ahal izango dira bertan. Baita, Kultur Etxeko tailerretan landutako gauzak ere. Azkenik, San Bartolome parrokia bisitatu nahi dutententzat hau zabalik egongo da goiz guztian.

geratzen dira. Irabazleek txapela, oroigarria eta 200 euro etxeratuko dituzte.

Gune berean, hau da, Emeterio Arrese parkean, Tolosaldeko XIII. Ezti Lehiaketa jokatuko da. Gipuzkoako Erlezainen elkarteak antolatuta. Honekin, bertako ezti bultzatzea eta erleak ingurumenari ematen dion babesa ezagutzera ematea dute xede antolatzaileek.

### Ibarratik Misio

#### Taldeak ere azokan

Ibarrako elizbarrutiko Ibarratik Misio Taldeak ere bere txokoa izango du etziko azokan. Elkarteak hainbat jarduerara antolatu ditu dirua biltzeko, eta India, Ekuador eta Hondurasetan bultzatzen ari diren proiektuak laguntzeko.

Aurreko urteetan egin duten bezala, oraingoan ere bi postu jarriko dituzte. Bata, Ibarrako saltoki eta erakundeek emandako gauzekin, eta bestea, Indiako eta Ekuadorko artisau produktuekin osatua. Era berean, herriko taberna eta dendek oparitutako saski bat zozketatuko da. Halaber, biltzen den diru guztia aurrez aipaturako misioak laguntzeko bideratuko dute.

# Euskal Herriko piparrak ezagunen topaketa egingo da

**Gizartea** » Azokaren X. urteurrena ospatzeko, Euskal Herriko Piparraren I. Topaketa egingo da Hausporen eskutik.

## ERREDAKZIOA

*Ibarra azoka eta piparra* azokaren X. urteurrena ospatzeko asmoz, Euskal Herriko Piparraren I. Topaketa antolatu dute etzi goizetarako. Ibarrako piparrak ez ezik, Euskal Herrian oso ezagun diren bestelako piparrak dastatzeko aukera ere izango da Emeterio Arrese plazan. Hala nola, Gernikako piperra, Lodosako pikillo piperra, Ezpeletako biperra eta Lapurdiko biper ezitia.

Haukin batera, Zarauzko Lau Kantoi elkarteak kideak Zarauzko piperrada ospetsua sukaldatuko dute, eta ibartarren artean banatu, dastatzeko.

## » EUSKAL HERRIKO PIPARRAREN I. TOPAKETA

- **Ibarrako piperra.** Gipuzkoa.
- **Gernikako piperra.** Bizkaia.
- **Lodosako pikillo piperra.** Nafarroa.
- **Ezpeletako biperra.** Lapurdi.
- **Biper ezitia.** Lapurdi.



Ibarrako langostinoak. HITZA


AUKERA HANDIA ETA GIUSTIA

# 400 Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIK, JANTZIAK, ESKULANGINTZA, DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **PLaza**.com



## ABALTZISKETAKO UDALA

**Iragarkia**

Abaltzisketako Udalak 2010eko irailaren 9ean egindako ahiko osoko bilkuran, akordio hau hartu zuen, Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko legeak 47.2. artikuluan ezartzen duen gehiengoarekin:

**LEHENENGOA:** Hasierako onarpena ematea Abaltzisketako hiria antolatuko duen Plan Orokorren dokumentuari.

**BIGARRENA:** Plan Orokorren dokumentu jende aurrean jartzea, udalerriri dagokien lurralde historikoko alizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. Plana hilebetetz egongo da jende aurrean, Gipuzkoako Alizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

**HIRUGARRENA:** Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.

**LAUGARRENA:** Plan orokor berrikuntzen dituen eremuetan sortzen dituen aldaketak, guztien urte beteko epean lizentziak ematea, suspentiduta geratuko da, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzako Legearen 85.3 artikularen babesean.

Epe horretan espediente orokorra edozeinek aztertzea ahal izango du udal honetako idazkaritzan astelehenerik ostiralara goizeko 9etatik arratsaldeko 1etara, astearte ezik. Honez gain, Abaltzisketako udaleko web orrialdean, [www.abaltzisketa.net](http://www.abaltzisketa.net) ean ikusi ahal izango da. Era berean aurkeztu ahal izango dira bere aurka egoki iruditzen diren alegazioak.

Abaltzisketan, 2010eko irailaren 20an  
Alkatea, Jesus Mari Gorostidi Irazusta



Bukatu da uda eta honekin batera baita bizikletaz Tolosaldeko hitza egiteko gure proposamenak ere. Azken honetan, Hernani, Goizueta eta Leitza zeharkatuko ditugu.

# Pilotarien herrietatik Urumea jarraituz

## JOXEMISAIZAR

**G**aur egungo pilotari ospetsuenetakoa eman dituzten herriak Hernani, Goizueta eta Leitza direlako eman diogu izen hori gaurko ibilaldiari. Beterri aldera abiatuz, Nafarroan sartu eta 86 kilometroko txangoa burutuz itzuliko gara etxera. Uda honetako azken proposamena izango da.

## Leitzarari

Tolosatik Andoain bitartean Leitzarango itzulian aipatutako bidea hartuko dugu: Anoeta, Villabona eta Aduna pasatuz ibaiaren ondoan doan bidexkatik, laua eta trafikoa handirik gabea.

Sorabila auzoa ere gertu utziko dugu, bisitatu nahi izanez gero. Andoaingo kaskora igotzeko aldapatxoak dugu. Bertan aurkituko dugu Santa Martin de Tours parrokia eta udaletxea, biak XVIII. mendekoak eta herriko eraikuntza aipagarrienak. Ondoren beste aldapa batzuk izango ditugu Urnietan eta Hernani bitarte. Urnietan San Miguel parrokia eta udaletxea aipatu behar dira. Hernanin San Joan parrokia eta udaletxea aurkitzen dira herriaren erdian. Pixka

bat aparteago, Txillida-Leku museoa. Hernanin Goizuetako bidea hartuko dugu. Ez dago aldapa handirik Nafarroako mugaraino. Urumea ibaiaren ondoan joango gara beti eta. Txirrindulari ugari ibiltzen den errepidea da. Mugatik Goizuetara aldapa eta jaitsiera batzuk aurkituko ditugu. Goizueta mendateraino iritsiko gara, Basakabi jatetxe zena bertan, etapa honetako punturik altuena. Tarte horretan zentral elektrikoak pasako dugu eta % 10eko aldapak beste leunago batzuekin tartekatzen dira.


## Ezkurra mendatetik Leitza

Ezkurra mendatetik jaitsiera gogorra dugu Leitzaraino, Bengoetxea eta Barriola pilotarien eta Perurena aita- seme harri-jasotzaileen herria. Hauen Peru-Harri museoa bisita daiteke. Artaleku mendatea dugu Gipuzkoako muga pasatu ondoren eta handik aurrera dena jaitsiera da. Berastegi, Elduain, Berrobi eta Ibarra zeharkatu beharko ditugu Tolosara iristeko.

Iazko udako ibilaldietan Tolosaldeko 28 herriak ezagutu ginen. Aurtengo udako ibilaldietan Gipuzkoako beste 22 herri eta Nafarroako beste 6 herri ezagutu ditugu. Hori aprobeztatuz, hurrengo erronka Gipuzkoako herri guztiak bizikletaz bisitatzeko eta ezagutzeko izan daiteke.



Goizuetako udaletxea eta plaza. JOXEMISAIZAR



**Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Artisautza eta Nekazal Azoka egingo dute etzi, goizean zehar

**Alegia** » Eguna baliatuz Txintxarri Abesbatzak kantu-jira antolatuko du; 12:30ean abiatuko dira plazatik.

**ERREDAKZIOA**

Azoka ugari izango ditugu igande honetan Tolosaldean, eta horietako bat Alegian izango da, bertan Artisautza eta Nekazal Azoka izango baita 11:00etatik 14:00etara.

Guztira 15 postu egongo dira ikusgai, guztiak alegiarrek jarritakoak. Horietatik, sei bat barazki eta jakien postuak izango dira (ogia, barazkiak, gozoak...), beste sei artisautzako postuak (fimoa, egurra, ukenduak, pilota takoak, larrua eta makrame), animalien postu bakarra jarriko dute (ardi eta behorrek) eta azkenik, hamaiketako eta taloak salduko dituzten bi postu ere izango dira.

Horretaz gain, Txintxarri Abesbatzak kantu-jira ere egingo du herriko kaleetan zehar 50. urteurreneko ekitaldien baitan. 12:30ean abiatuko dira plazatik eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera.

**Garai bateko ohitura berreskuratu nahian**

Garai batean herrian zegoen kantatzeko joera berreskuratu eta indartu nahi du abesbatzak, eta hori dela eta, kalez kale euskal kantak kantatuz ibiliko dira abesbatzakoak eta nahi duten herritar guztiak.

«1960 urtean abesbatza sortu zenean debeku garaia zen euskal



laz egindako azokan 12 postu jarri zituzten. I. LAHIDALGA

kulturarentzat, baina pixkanaka herritarrak esnatzen joan ziren eta sarritan kalean eta afari-legeetan euskal kantak kantatzea izaten zen euskal kultura eta nortasuna aldarrikatzeko modu ia bakarra. Garai hartan abesbatza gutxi zegoen inguruan, baina abesteko zaletasuna handia zen; kantuaren tradizio hori belaunaldiz belaunaldi pasatzen joaten zen», gogoratu dute abesbatzako arduradunek.

Azken urteetan, hala ere, kantatzeko joera hori pixka bat itzali egin da Euskal Herrian, baita Alegian bertan ere. «Belaunaldi be-

rriek ez dituzte ezagutzen euskal kantagintzako abestiak. Horretatik, behar horretaz jabetuta, urteurrena egokia iruditu zaio abesbatzari Euskal Herrian gero eta gehiago egiten diren ekimen horietako bat herrian ere antolatzeko. Gainera, kontuan izan behar da abesbatza herriko kantzale baten gogotik sortu zela», azaldu dute. Horiek horrela, igandean kantu-liburuxkak banatuko dituzte abesbatzakoek eta San Joan kalean barrera ibiliko dira, geldialditxoak eginez eta euskal doinuak kantatuz.

# Elkarretaratzeak hileko azken ostiralean

**Politika** » Hilero bezala AAMk deitzen dituen bilkurak izango dira gaur eskualdeetako hainbat herritan.

**ERREDAKZIOA**

Hilero bezala, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azken ostiralerako deitzen dituen elkarretaratzeak martxan dira. Gaur bezala, Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat udalerritan izango da aukera senide zein presoekiko babesa adierazteko. Era berean, astelehenean, hilak 27, Gudari Eguna izango dela gogoratu dute.

**» ELKARRETARATZEAK**

**Gaur, hilak 24**

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketa. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Lizartza. 20:00etan.
- Orendain. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.
- Leaburu-Txarama. 20:15ean Txaraman.
- Leizta. 20:00etan Lopeneko birbilgunean.



# Haurrek jolastoki berria dute

**IRURA** » Bi hilabete lanean eman eta gero ireki dute jada Ikastolaren ondoan dagoen jolas parkea. Parkeak 3 eta 12 urte bitarteko umei zuzendutako gailuak ditu: kulunkak, tobogana, ariketa desberdinak egiteko sarea... Argiztapena ere aldatu dute kontsumo gutxiko sistemako farolak jarri ditzutelarik. E.MAZ

**tolosaldek.ohitza.iragarkilaburrak.com**

Azkenekiko argitalpenak 15.000tik aurrerantzean argitaratuko dira. IRAGARKIAK JARTZENDU: www.tolosaldek.ohitza.iragarkilaburrak.com | 943-65 76 55 telefono zerbitzua

**Higiezinak ETXERENDEKATZAK**

**SALBU**

**Tolosa.** Tolosa Aste Zaharrean 50 m<sup>2</sup>-ko atikoa salgai. Eguna onen aldia eta oso argi dago. Igogailu badi. 152.000 euro (22.000.000 peeta). Hurrengoan: 943-43 00 20. Zuzenean salmenta.

**Lanaberrak LAN EKARIBAR PERTSONAK ZARRUKA**

**SALBU**

**Tolosa.** Esperientziadun nekazal enkaintan da barterean nahi izan nahi zaitzake. 685-706103.

**IRAKASLENTZA**

**SALBU**

**Villabona.** Ingelesko klaseak ematen dira Gispokoan mullan. Taldeko

**Higiezinak**

**SALBU**

edo bakarka. Malla ezberdinak. Inkeste tituladuna. 664-36 02 68 edo continental06@hotmail.com

**GAINERAKOAK**

**SALBU**

**Tolosa.** Mutil gaztea, lan bila. Edozein lanerako prest nago, esperientzia: hostalaritza, almazentatzen, auto tallerretan, fabrikako asistentzia lanpostuetan (grua, feni-txi-a, grentan, soldatzen...). 647-14 23 58

**LAN EKARITZAK ETXERENDEKATZAK**

**SALBU**

**Tolosa.** Enskaintza behar da etxeko lanak egin eta/haserik zaitzake. Auta eduki behar da. Interesaturik, deitu: 943-65 12 64 edo 600-33 62 14.

**Higiezinak AUTOMAK**

**SALBU**

**Autosalgai.** Volvo gertuareng v6. Hiru urte bakarrik ditu. 100.000 kilometro. Oso eguna onen eta prezio onen. 629-40 32 20.

**KANPOKOAK GUREAN**

**Higiezinak ETXERENDEKATZAK**

**SALBU**

**Betelu.** Betelekin salmenta. Berria, hiru logela, sukaldia, egongela, bi bainu-gela eta igogailuarekin. Prezio onen. 629-40 32 20.

**Ordu.** Orduko hondartza pisu berria salgai. Bilagela, sukaldia, egongela, 2 bainu-gela eta bi autorentzako garajea. Te-

**Higiezinak**

**SALBU**

maza eta lau salla erabilita. Prezio onen. 686-14 29 10.

**Lanaberrak LAN EKARIBAR PERTSONAK ZARRUKA**

**SALBU**

**Dublin (Irlanda).** Gure laura zaldutako da eta oso onen bilagabiltza. Familia euskal-irlandiarra. Enkaintza hitzartuta erabiltzeko da. Astean biot eguneko lana eta iriak hurrengo hantzikoa. Dublin inguruan. Beldintzetatik iriz egiteko: igorpen@gmail.com.

**NEGIZKOAK/TRAPEZIOAK**

**SALBU**

**Larraun.** Etxebizitza-jartzea salgai prezio onen. Aralarren ondoan. Larraun baliara, martxan.

**OPORRAK/IRAGAIK GAINERAKOAK**

**SALBU**

**Etxeri Lodosa.** Nafarroako Eborren erribera eguturatsa/bedura, etxeri Lodosa eta egun batzuk pasatu gure lantzetan. 677-83 40 47 edo 948-69 36 10.

**Aldaketa**

**SALBU**

**Jartzea.** 4 logela, 2 komunak... Hurrengoan: 420.000 euro. Hurrengoan jartzeko delita honako telefono zerbitzua: 618-77 58 74 (Bea).

**LAZKAO**

**SALBU**

**AZKEN PISUAK SALGAI**  
11 logela eta 6.000 m<sup>2</sup> bainet enkaintan dira  
Jose Lasa, 4-beha - 20210 Lazkao - 943-88 37 39  
www.lamy lazkao.com

**Salbide SALBIDE Higiezinaren zerbitzua**

Bokain kalea, 6 • 20100 Zarautz  
Telef: 943-01 07 60 • Fax: 645-71 85 94  
www.inmosalbide.com

**Azarnazabal.** 3 logela etxebizitza, 10 metro koadrako trastelekuarekin. Oso prezio onen. 23.000.000 peeta.

**Azarnazabal.** ALKERA ONA. Etxebizitza erabi berria. 2 logela. 30.000.000 peeta.

**Zarautz.** Aduen Parke Logela batko etxe handia. Albia eta bieta ederrak. Trasteleku eta igogailu. 47.000.000 peeta.

**Zarautz.** Vista Alegria. 2 logela eta Terraza handia. Eguzkitza. 49.500.000 peeta.

**Zestoa.** Amos behea. 2 logela etxebizitza. 28.000.000 peeta.

**Getaria.** Herrerrieta kalea. 3 logela eta 2 bainu-gela etxebizitza. Trastelekuarekin. Eguna onen. Prezio onen. 42.500.000 peeta.

**Aia.** Erakuntza berria. 3 logela, 2 bainu-gela eta 127 m<sup>2</sup>ko terraza. 46.388.000 peeta.

**Aia.** Sarriko auzo. ALKERA BERRIA. 92 m<sup>2</sup>ko 3 logela etxebizitza. 15 m<sup>2</sup>ko trastelekuarekin. Erreforma behar du. 25.885.000 peeta.



16°  
14°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	11°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



**KORSIKA**

Garazi Munduate: «Argazki hau Korsikan ateratakoa da, Piscià di Gallu ur-jauzirako bidean. Bat-batean harri handi bat topatu genuen erdi zintzilik, auskalo nola mantentzen den orekan! Badirudi zeruaren urdina, laino zuria eta harria harmonia perfektuan daudela...». GARAZI MUNDUATE

**A Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Nagore Marotias Garmendia (Tolosa).** Gaur 4 urte. Zorionak etxeko printzesari, izebaren partetik.

**Zorionak Maite!**



Espetxetik nahiz kaletik, tinko askatasunerako bidean. Zorionak eta muxu bat Maite!

**A Agenda**

**Antzerkia**

■ **Tolosa.** Glu glu produkzioen *Vaya semana* antzezlanaren Leidor aretoa, 20:00etan (Estrenaldia).

**Kultur eta adinekoen asteak**

- **Bidegoian.** Kultur Astea: 19:00etan patata tortilla lehiaketa Bidaniako frontoian. Trikitixa ikasleek giroa alaituko dute.
- **Villabona.** Hirugarren Adinaren XXV. Astea: argazki proiektzioa eta mus, tute, txintxon, seiak eta esko-ba txapelketen finalak.

**Erakusketak**

■ **Tolosa.** *Inestable* Aranburun.

» **GUARDIAKO FARMAZIAK**

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gure eguna helduko da! Borroka da bide bakarra! Ibarra eta Lizarratik maitasunez

**Lanerako prestatzen zaituzugu**

NOBENTZAKO?      ZER?      ZERTANAKO?

- Minibaliakotasun bat baino baduzue eta lan bila ari bazare
- Biluzten ari zaren lanerako trebakuntza eskaintzen dirugu.
- Praktikak eta lan aukerak:
- Industria atale:
- Autismoa
- Berezialtasun
- Trenbidea
- Energia bereragaria
- Osasun planifikazioa
- Ingeniaritza
- Liburutegi laguntzaritza
- Catering eta ostalaritza
- Erakuntzen mantenimenduzko lanak
- Garbiketa industriala
- Casalingoak
- Lantzeritza
- Hustegia
- Harengileak
- Vending
- Offshet inpresioa eta digitala
- Mailing-a
- Arte Grafikoaren akaberak
- Centas Center
- Back Office-ko akzioak
- Beste jarduera eta nahi diren beste aukera batzuk: zerbitzaria, dendaria, idazkaria...

Jari zaituzte gurekin harremanetan: Maria Itxoa. a. -20081 Donostia 943 000 795. akademi@gipuzkoariak.com